

Bestearen ikuspegia: mugako paisaia Arapa/Iñerbas]

Inerbaseko muino horretan, defentsa-lerro frankista garrantzitsua hedatzen da. Posizio horiek 1937ko urtarrila eta apirila bitartean gotortuak izan ziren, edo behintzat indartuak. Hauek nolabaiteko lasaitasun tirabiratsuko hilabeteak izan ziren euskal frontean. Villarrealeko gudu tragikoaren ondoren, bando biak, eraso zuzenik izanez gero, haien kalteberatasunaz jabetu ziren, eta, horregatik, gogor gotortu zituzten beren posizioak. "Frontearen solidotzeak" zonalde honen "muga" zentzuaz ere hitz egiten digu.

1936ko udazkenean, bi bandoak berrantolatu egin ziren, militarki ez ezik, baita politikoki. Espainia errepublikarrean eta euskal kasu partikularrean, autonomia eratu zen. Eusko Jaurlaritza, Jose Antonio Agirre lehendakaria buru duen behin-behineko Jaurlaritzarekin eta alderdi politiko guztietako kideak – EAJ, PSOE, Izquierda Republicana, Partido Comunista de Euzkadi, EAE-ANV eta Union Republicana –, CNT anarkosindikalista izan ezik. Espainia matxinatuan, aldiz, Franco jenerala Estaturu eta Jeneralisimo izendatu zuten, "Espainia Berria" ren botere guztiak bere baitan bilduz eta diktadura luze-luzea, geroago lurralde osora iritsiko zena. Horrela, gerrako fronteak ez zuen bakarrik militarki aurrez aurre zeuden bi bando zatitzen, baizik eta "muga" gisa balio zuen – bi sistema soziopolitiko erabat ezberdinen arteko muga arriskutsu bezala.

Inerbas muino horretan, goi-tentsioko dorre baten ondoan eta Arapa izeneko mugarri historikoaren inguruan ikuspegia iparralderantz altxatzen bada, borrokalari frankistek zuten ikuspegia ikus daiteke. Ikuspegi manikeoa, gu haien aurka kontzeptuan oinarritua gerraren ispilu. 1937ko neguan egindako krokis panoramiko batean ikus daitekeenez, aurreko mendiak – Oketa, mapan "Gorbea Chico"; Zizkino; Olartegi – "eremu etsai" gisa agertzen da, "gorriak" izenekoaren kontrolpekoa. Azken batean, erdibitutako lurraldea, gerraren ikarak menderatua.

Josu Santamarina Otaola

MEMORIA HISTORIKOAREN IBILBIDEAK ZIGOITIAN
(2019/02/07) FRONTE FRANKISTA (1936-1937)